



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKARI BEGIRADA BAT

Gure bibliotekak 10 urte bete ditu eta aukera ezin hobea iruditzen zaigu hura beste modu batez behatzeko, urteroko txostenetako datuek eskaintzen duten begiradatik aparte.

Goitik begiratuta, Campus erdian lehorreratu den ontzi baten itxura du eraikinak. Kanpotik behatuta geldirik eta hermetikoa dirudi, barrutik, ordea, irudia oso bestelakoa da.

Zutik, atarian, antzoki bateko foyerrrean gaudela pentsa genezake. Hemen, han bezala, mugimendua eta jarduera etengabeak dira, eta hemen, eraikinaren beste inon baino hobeto, gauzatzen dira gure liburutegian-hiztegian ohikoak diren bi hitz: zirkulazioa eta iragatea. Diziplina desberdinetako pertsona eta liburuek gurutzatu eta elkartu egiten dira egunero barneko plaza honetan.

Gure ibilbidea jarraitzen badugu eta aretoen zehar mugitzen bagara, segituan jabetuko gara *auditoriuma* eta agertokiak unitate bat osatzen dutela antzoki berezi honetan. Hemen elkarrekin bizi garen pertsonak, bibliotekako langileak eta erabiltzaileak, ikusleak eta antzezleak gara aldi berean. Publikoari zabalik dauden areto hauetan, gure pertsonaiak gurutzatu eta elkarri eragiten diete. Interakzio horiek aurreikusteazina dira, hemen gauzatzen den antzezpena, elkarbizitzaren eta partekatzearen arau jakin batzuen arabera gertatzen den arren, gidoirik ez duelako. Bigarren mailako elkarreraginak daude, baina antzezpena gidatzen dutenek zerbaiten bilaketarekin eta topaketarekin dute zerikusia. Zerbait horri informazio akademikoa deitzen diogu. Leku honetan, aretoetako langileak ahalegintzen dira erraztaileen paperean edo, zehatzago esanda, gainerako aktoreei informazio-laguntza emateko jardueran anitzetan.

Espazio ireki horietan, talde-lanetarako gelek eta ikerketa-kabinek tabike finen bidez bereizten dituzte itxuraz oso urrun dauden zeregin eta diziplinetan diharduten pertsonak; hala ere, diziplina horiek *continuum* bat osatzen dutela badakigu. Eta uste dugu jarraitasun horrek, diziplinen arteko tabike horien mehertasunak, hain zuzen ere, zentzu osoa ematen diola Campuseko Biblioteka honi.

Urteurren hau baliatu nahi dugu gure *auditorium/agertoki* hau lantoki, elkartze eta elkarreraginerako espazio gisa aldarrikatzeko, baina jakitunak gara liburutegiko espazioak, gaur egun batez ere, askoz ere dimentsio handiagoa hartzen duela. Itsaontzi/antzoki honen barruan informazioan zeharreko nabigazioa apalategietan barrena gertatzen da, baina baita ere, *clicken* bidez horma hauetatik haratago doa. Izan ere, gure liburutegia, informazioa eta ezagutza bezala, neurri batean egokia den ingurutzailer honetatik, zirkunstantziala baino ez den eraikin honetatik haratago zabaltzen da. Baina, era berean, aldarrikatu behar dugu *click* gehienek eta kanpo-nabigazioak arrakasta dutela, hain zuzen ere, liburutegiari esker. Arrakasta horren atzean gure *backstage*-aren ahalegina dago.

Gure ibilbideari jarraitzen badiogu eta banbalinen artean mugitzen bagara, aurrekontuak, bildumak eta baliabideak kudeatzeko lan sotila, baina ezinbestekoa, ikusiko dugu, bai eta lan horrek eskatzen dituen lan tekniko ugariak ere. Eta banbalinen artean aparteko irtenbideak ere eskaintzen dira ohiz kanpoko beharrentzat, ohiko bitartekoekin lortzen zaila denarentzat eta, aldiz, lankidetzaren bidez ekin daitekeena. Gure hiztegian ohikoa den beste hitz bat da lankidetzeta, beste liburutegietara eta haien baliabidetara joz mugatua den gure espazio hau gainditzeko beste modu bat. Baina baita barne-lankidetzeta ere, gure unibertsitatearen ekoizpen akademikoari kanpoko ikusgarritasuna emateko, UPV/EHUko artxibo digitala mantenduz eta elikatuz, irakasleei eta ikasleei laguntza emateko, ikertzaileei banakako aholkularitza eskaintzeko eta gure urteko memorietan zehaztutako beste hainbat zeregin betetzeko.

Geldirik dirudi, *eppur si muove*.

UNA MIRADA A LA BIBLIOTECA DEL CAMPUS DE GIPUZKOA

Nuestra biblioteca ha cumplido diez años y nos parece una buena ocasión para observarla bajo una mirada diferente a la que ofrecen los datos de nuestras memorias anuales.

A vista de pájaro, el edificio se asemeja a una nave varada en el centro del Campus. Observada desde el exterior parece inmóvil y hermética, desde su interior, en cambio, la imagen es otra.

De pie, en el vestíbulo, podría pensarse que estamos en el foyer de un teatro. Porque aquí, como allí, el movimiento y la actividad son constantes y, aquí, más que en ningún otro lugar de nuestro edificio, se materializan dos palabras tan habituales en nuestro lenguaje bibliotecario: circulación y tránsito. Libros y personas de distintas disciplinas se entrecruzan y encuentran a diario en esta plaza interior.

Si proseguimos el recorrido y nos movemos por las salas, advertiremos enseguida que en este teatro peculiar el auditorio y el escenario constituyen una unidad. Las personas que convivimos aquí, personal bibliotecario y personas usuarias, somos espectadoras y actores a la vez. En estas salas, abiertas al público, nuestros personajes se encuentran e interactúan. Las interacciones son imprevisibles porque la representación que aquí ocurre, aunque sucede bajo normas determinadas por la convivencia y la compartición, no tiene guion. Hay interacciones secundarias, pero las que guían la representación tienen que ver con la búsqueda y el encuentro de algo. Algo que llamamos información académica. En este lugar, el personal de salas se esfuerza en su papel de facilitadores, en su labor, que adopta múltiples formas, de apoyo informativo al resto de actores.

Dentro de estos espacios abiertos, las salas de trabajo en grupo y las cabinas de investigación separan mediante finos tabiques personas ocupadas en tareas y disciplinas aparentemente muy alejadas pero que, sin embargo, sabemos que forman un continuo. Y es precisamente esa continuidad, la finura de esos tabiques que separan disciplinas, lo que creemos que da pleno sentido a esta biblioteca de Campus.

Aprovechamos este aniversario para reivindicar nuestro auditorio/escenario como lugar de trabajo, de encuentro e interacción, pero somos plenamente conscientes de que el espacio bibliotecario tiene, sobre todo actualmente, una dimensión mucho mayor. En el interior de esta nave/teatro la navegación por la información sucede entre las estanterías, pero también, a golpe de *click*, trasciende estas paredes. Nuestra biblioteca, al igual que la información y el conocimiento, se extiende mucho más allá de esta envolvente más o menos afortunada y, en todo caso, meramente circunstancial. Pero debemos reivindicar también que la mayoría de esos *clicks* y de esa navegación exterior tienen éxito precisamente gracias a la biblioteca. Un éxito detrás del cual está el empeño de nuestro *backstage*.

Si proseguimos el recorrido y nos movemos entre bambalinas, observaremos el trabajo discreto, pero fundamental, de gestión de los presupuestos, de las colecciones y de los recursos, así como los numerosos trabajos técnicos que esta labor requiere. Y entre bambalinas se ofrecen también soluciones extras para lo extraordinario, aquello difícil de conseguir con los medios ordinarios y abordable, en cambio, mediante la cooperación. Cooperación es otra palabra habitual en nuestro vocabulario, otra forma más de trascender este espacio limitado mediante el recurso a otras bibliotecas y sus medios. Pero también cooperación interna para dar visibilidad exterior a la producción académica de nuestra universidad, mediante el mantenimiento y alimentación del archivo digital de la UPV/EHU, para dar apoyo a docentes y alumnado, para ofrecer asesoramiento individualizado al personal investigador y para tantas otras tareas detalladas en nuestras memorias anuales.

Parece inmóvil, *eppur si muove*.

CENTRO CARLOS SANTAMARÍA ZENTROA
GIPUZKOAKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKA / BIBLIOTECA DEL CAMPUS DE GIPUZKOA

10 URTE zurekin!

